



Lehen Hezkuntza

5. Moduluaren gida:

**"ESKOLA GAITASUNAK ETA EUSKAL
CURRICULUMA" DIZIPLINARTEKO LANA
(DAL) EGITEKO GIDA**

2026-2027

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena.....	3
2. Arautegia eta salbuestea.....	3
3. Gaitasunak eta ikastearen emaitzak	5
4. Lanaren garapena	5
4.1. Antolaketa	5
4.2. Pausuak	6
4.3. Lan idatziaren atalak	7
4.4. Entregatu beharreko lanak	7
4.5. Lan idatziak egiteko arauak:	8
5. Ebaluazioa:	8
6. Eranskinak.....	10
1. Eranskina: Lan idatziaren eta ahozko defentsaren ebaluaziorako errubrika	11 Marcador no definido.
2. Eranskina: APA arauak, argitalpenen erreferentziarako	11 Marcador no definido
3. Eranskina: Koebaluazio-orria	14

1. Aurkezpena

Lehen Hezkuntzako Graduaren 3. maila honetan, ondoko gai hau lantzea erabaki du 5. moduluen irakasle taldeak: **ingurunearen baliabideak (Bizkaia) eta haien erabilera-aukerak LHko ikasleriarekin.**

Azken urteotan zehar Lehen Hezkuntzako geletan era eraginkorrean egokitu daitezkeen baliabideen eskaera handia jaso dugu. Gure ustez, baliabideen zerrenda bat edukitzeak Lehen Hezkuntzako geletako haurrekin egin beharreko lana erraz dezake. Egunez egun ekintza motibatzaile eta formatzaileak prestatzeko lanaren esperientzia bizi izan ez dutenek soilik gutxietsi dezakete era honetako eskaera.

Hori dela eta, Moduluko Diziplina Arteko Lana (DAL) era honetan definitzen da: Ingurune (Bizkaia) baliabideak ezagutzea, horietako bat arrazoituz aukeratzea eta hari dagokion informazio guztia ekartzea: kokapena, bere historia, titulartasuna, ustiapena, irisgarritasuna, ezaugarriak, Lehen Hezkuntzako (6-11 urte) ikasleekin diziplinarteko lan bat egiteko baliabide gisa dituen ahalmenak eta abar. Informazio hori 15 orriko dokumentu batean jasoko da eta irakasle tutorearen aurrean aurkezpena egin beharko da. Horrekin batera, horma-irudi (70cm x 100cm) edo poster dibulgatzaile bat egingo da Leioako Irakasle Eskolan erakusteko.

Gure ustetan, ingurune baliabide bat errealitatearen zati bat da, eta hura ulertzeak errealitate hori ere ulertzea dakar.

2. Arautegia eta salbuestea

Gaitasunen araberako curriculum batek planteatzen duen aldaketa handienetako bat da birplanteatzea nola erakutsi behar den eta zeintzuk diren estrategiarik egokienak ikasten ikasteko, egiten jakiteko edo gizartean esku hartzeko.

Etengabeko ikaskuntzarako beharrezko funtsezko konpetentziei buruz, 2018ko maiatzaren 22ko Europar batasuneko kontseiluaren gomendioei jarraituz eta Garapen Iraunkorreko Helburuek ezarritakoaren arabera (Agenda 2030), EAEko irteera-profilak 8 funtsezko konpetentzia definiturik ditu (77/2023 dekretua): Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, Konpetentzia eleaniztuna, Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia, Konpetentzia digitala, Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, Herritartasunerako konpetentzia, Ekintzailatza-konpetentzia, eta Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

5. modulan, **"Eskola Gaitasunak eta Euskal Curriculumak"**, Lehen Hezkuntzako curriculumeko arloen zati handi bat lantzen da. Kontuan izanik oinarritzko gaitasunak arlo eta gai ezberdinetatik abiatuta garatzen direla, eta arlo guztiek ekartzen dituztela oinarritzko alderdiak gaitasunen garapenerako, Moduluen Diziplinarteko Lana ingurunearen baliabideetan eta bere ahalmenetan zentratuko da oinarritzko gaitasunen garapenari begirako diziplinarteko erabilera egiteko.

OHAR GARRANTZITSUA: Ezinbestekoa da Lanaren garapen osoan zehar uneoro kontuan izatea diziplinarteko ikuspegia, Lanaren (DAL) oinarrizko helburua baita.

DALa egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu batean gutxienez 3 irakasgaietan matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Mugikortasun programetatik, atzeritik etorritako ikasleek DALa egin beharko dute gutxienez 3 irakasgaiez matrikulatuta egotekotan. DALa burutzeko hizkuntza tutoreekin adostuko da. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
3. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, gutxienez modulu bateko 3 irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
4. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.
5. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) bakar bateko DALa burutuko dute, honako irizpideen ordenari jarraiki: 1. Inoiz egin ez duten moduluko DALa egin beharko dute lehenik; 2. Ikasleak aurretik modulu bietako bat bera ere egin izan ez balu, irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko du; 3. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.

Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman **justifikatutako arrazoiengatik** (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEn bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak) ezin badu parte hartu, DALarekin lotutako idatzizko proposamen bat egin beharko du eta erabakitzen den egunean hitzez aurkeztu beharko du.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan urriaren 4a baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da. DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

3. Gaitasunak eta ikastearen emaitzak

GAITASUNAK	IKASTEARENEMAITZAK
Oinarrizko gaitasunen garapenean curriculumeko gai bakoitzaren ekarpena ezagutzea eta ulertzea. Inguruneko baliabide baten elementuak identifikatzea eta elkarren mendeko elementu multzo baten gisa onartzea, diziplinarteko ikuspegi batetik aztertu eta interpretatzeko. Inguruneko baliabideak ezagutzea eta bere hezkuntza ahalmenak identifikatzea. Talde-lana, parte hartzea, erantzukizuna, autoestimua eta sormena garatzea. Euskara eta gaztelania ondo jakitea eta gutxienez atzerriko beste hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak izatea, ekoizpen eta hizkuntza ulermen zuzen eta egokia erakutsiz, bere lanbidean aritzeko hezkuntzaren testuinguru eleaniztun batean, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak garatuz (13. zeharkako gaitasuna). Lehen Hezkuntzako curriculum arloak, haien arteko diziplinarteko harremana, ebaluazio irizpideak eta irakaskuntza eta ikaste prozedurei dagokienez ezagutza didaktikoen multzoa ezagutzea (1. zeharkako gaitasuna).	Azalpen dokumentu bat sortzea, hiru puntu hauek kontuan hartuta: -Inguruneko hiru baliabide deskribatzea diziplinarteko ikuspegitik. -Inguruneko baliabide baten hautaketa arrazoitzea eta argudiatzea. -Curriculum dekretuan aipatzen diren gaitasunak hautatutako baliabidean nola garatu daitezkeen zehaztea. Hizkuntza ondo erabiltzea bai azalpen dokumentuan bai ahozko edozein jardunetan. Aktetan talde lana, parte hartzea, erantzukizuna, autoestimua eta sormena islatuko dira.

4. Lanaren garapena

4.1. Antolaketa

5. modulua: "Eskola Gaitasunak eta Euskal Curriculum" Lehen Hezkuntzako graduaren 3. mailan lantzen da, lehenengo lauhilekoan. Moduluko Diziplina arteko Lana (DAL) 3 kredituz osatuta dago, ondoko gaiekin bat datozenak:

- 0,6 Kreditu: Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika.
- 0,6 Kreditu: Gizarte Zientziak eta bere Didaktika II.
- 0,6 Kreditu: Matematikak eta bere Didaktika II.
- 0,6 Kreditu: Natur Zientziak Lehen Hezkuntzan II.
- 0,6 Kreditu: Gorputz Hezkuntza eta bere Didaktika.

(Ikasgai guztietan, bukaerako notaren gain 0.6 puntu suposatuko du)

- Moduluko Lana 6 laguneko taldetan egingo da. Taldeak moduluko koordinatzaileek osatuko dituzte.
- Moduluko Diziplinarteko Lana (DAL) burutzeak 75 lanordu eskatzen dizkie ikasleei, 5 astetan zehar banatuta. Irakasleen taldeak erabaki du Moduluko Lanari dedikatuko zaizkion asteak ikasturteko 5.a eta 6.a izatea. Bi aste horietan, DALaren garapenera bideratutako saioak egingo dira, bai saio magistraletan bai GA saioetan, ikasturte bakoitzeko antolaketaren arabera.
 - o Astelehenean: talde guztiak (Hirueleduna, 31 eta 32) goizeko 08:30ean Juliana Aretora deituak izango dira. Bertan, koordinatzaileek moduluaren aurkezpena egingo dute, gainerako moduluko irakasleen laguntzarekin. Aurkezpena amaitu ondoren, ikasleak esleitutako tutorearekin bilduko dira lanean hasteko.
 - o Hurrengo asteetan: dagokion irakaslearekin tutoretzak eta lana egiten jarraitzea.
 - o Aste horietan moduluko irakasleak ikasleen eskura egongo dira Zentroan bere klase magistralei, gelako praktikei eta tutoretzei dagozkien ordutegietan.
- Laneko talde bakoitzarekin tutoretzako 2 saio egongo dira gutxienez.
- Printzipioz, Talde Hirueledunean DALa euskaraz egingo da, tutorearekin bestelako akordiorik ez dagoen bitartean.

4.2. Pausuak

Egin beharreko Lana irakasleei zuzendutako ingurunearen baliabide bati buruzko azalpen-dokumentu bat egitean datza. Horma-irudi edo poster batez lagunduko da, Bilboko Hezkuntza Fakultateko Graduako ikasleei zuzendutakoa. Lan idatzia eta horma-irudia irakasle tutorearen aurrean aurkeztu beharko dira.

Lan honek ondoko faseak ditu:

1. Emandako baliabideen zerrendatik 3 aipatuko dira, baita horietako bakoitzaren azalpen labur bat ere galdera honi erantzunez: zer eskaintzen dute ingurune (Bizkaia) errekurso horiek gelan modu interdiziplinar batetan erabiltzeko? (bakoitzari buruzko orri bat, gehienez ere).
2. Baliabide bat aukeratuko dugu, eta hautaketa hori arrazoitu eta argudiatuko dugu.
3. Baliabidea dagoen lekua bisitatuko dugu eta beharrezkoa den informazioa jasoko dugu.
4. Aukeratutako baliabidearen azalpen-dokumentu bat landuko dugu Lehen Hezkuntzako (6-11 urte) ikasleekin erabiltzeko dituen diziplinarteko ahalmenak argudiatuz, indarrean dagoen curriculum oinarri izanda.
5. Horma-irudi bat edo poster bat diseinatuko dugu Bilboko Hezkuntza Fakultatean erakusteko.
6. Irakasle tutorearen aurrean lan idatziaren eta posterraren aurkezpena egitea, horrek zehazten duen datan.

4.3. Lan idatziaren atalak

- 1- Sarrera
- 2- Marko teorikoa: Ingurunekeo baliabideen garrantzia LHko ikasgeletako gai ezberdinak lantzeko, modu interdiziplinarrean eta gaitasunak lantzeak duen garrantzia azpimarratuta.
- 3- Proposamena: zenbait baliabideren artean bakarra aukeratu eta hautaketaren justikazio arrazoitua egingo da.
- 4- Lotura kurrikularra: Funtsezko kompetentziak, arloetako kompetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak (Hautatutako baliabidea lantzeak moduluan parte hartzen duten ikasgaien zer curriculum osagai garatzeko balio duen zehaztea).
- 5- Ondorioak
- 6- Bibliografia (Gutxienez hamar aipamen eta erreferentzia bibliografiko zientifikoak).
- 7- Eranskinak: Irteera antolatzekeo beharrezkoak diren protokolo eta dokumentuak:
 - Eskola irteeren protokoloa, gelatik kanpoko irteera ororen aurretik, behar bereziak dauzkaten ikasleak kontuan hartuta.
 - Irteera egitekeo behar diren baimenak (gurasoei eta zentroko zuzendaritzari idatzitako gutunak erantsi).
 - Irakasle arduradunen kopurua (gurasoei borondatezkeo laguntza eskatuz gero, gutunak erantsi).
 - Irteeran erabilikeo diren segurtasun neurriak eta balizkeo istripuei erantzutekeo jarduerak.
 - Irteeraren plangintzarakeo erabilitakeo dokumentazio osagarria (mapak, planoak eta beste erakunde batzuek egindakeo materiala).

4.4. Entregatu beharrekeo lanak

- **Lan idatzia (T1):** Modulukeo lehen astean egingo da eta aste horren bukaeran lehen bertsioa entregatukeo da (behin betiekeo dokumentuaren entrega tutorearekin adostutakeo datan). 15 orrikeo luzerakeo lan-idatzia izango da, lerroarte bakunarekin eta Eranskinak kontatu gabe. Ondokeoak jasokeo ditu:

- Gaiaren inguruan egindakeo taldearen eztabaidaren isla: zer baliabide dituen nire inguruneak diziplinartekeo erabilera ahalbidetzen dutenak.
- "4.3. Atalak" puntuan zehaztutakeo.
- Eranskinetik ondokeoak jasokeo dituzte: Planteatutakeo gaiei irtenbideak ematekeo erabili den dokumentazio osagarria.

Posterra (T2): Modulukeo Diziplinartekeo Lanaren 4. astean (ikasturtekeo 9. astean) entregatukeo da. Baliabideari dagokion horma-irudia edo posterra. (Sormena, mezuetan arreta eta argitasuna erakartzeko elementuen egokitasuna baloratukeo da).

- **Ahozkeo defentsa (T3):** tutorearekin adostutakeo datan taldeak lan idatziaren eta posterraren ahozkeo defentsa burutukeo du. Aurkezpenak 10 minutu ingurukeoak izango dira eta tutoreak ikasleei banan-banakeo galderak egingo dizkie.

4.5. Lan idatziak egitekeo arauak:

- Formatuaren aldetik Gradu Amaierako Lanetako txantiloia jarraituko da, ikusi hemen:

<https://www.ehu.es/documents/2955630/12372556/Txantiloia+-Oinarrizko+dokumentua.docx>

- Erreferentzia bibliografikoak APA 7. argitalpen (2021) araudiarekin bat etorriko dira (2. Eranskina). Araudi hau web orri honetan eskuragai:

<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42398/Gu%C3%ADa-Gidaliburua.pdf?sequence=9&isAllowed=ya>.

- **Posterra egiteko arauak:** eduki argiak, laneko puntuak aipatu behar dira eta formatoaren aldetik 70×100 cm neurriko poster dibulgaizailea izango da. Posterrean agertu beharko den informazioa: autoreak, aukeratutako baliabideak, kokapena, helburuak, gaitasunak, edukiak eta irakasgaiak.

Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte.

- Aspektu hauek hartuko dira kontuan:
- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
- Diskurtsoaren ulergarritasuna
- Hiztegia eta Ortografia
- Ergatiboa eta komunztadura

Plagioa: Debekatuta dago beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

5. Ebaluazioa:

Irakasle-tutoreak lan idatziaren ahozko-defentsa (%70), eta horma-irudi edo posterra (%30) baloratuko ditu. Moduluko Lanaren notaren %100 balioko du. Lan idatziaren ebaluazio irizpideak 1. eranskinean zehaztutako errubriketan aurkitzen dira.

Posterren ebaluazioa irakasle koebaluazioaren bidez burutuko da, hau da, bi tutoreen artean egingo da.

Horrez gain, ikasleek gida honetako 3. eranskinean jasotzen den koebaluazio-orria bete beharko dute.

DAL-aren ebaluaziorako kasuistikak: DAL-aren ebaluazio jarraitua egiteko gutxienez 3 irakasgai modu jarraian gauzatu beharko dira. Gainerako kasuetan DAL-aren

ebaluazio ez-jarraia burutuko da irakasleek ikasgai bakoitzean DAL-aren inguruan erabakiko duen froga baten bitartez.

Edonola ere, EHUK 2016ko abenduaren 15ean erabakia hartu eta 2017ko martxoaren 13an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu duen araudia aplikatuko da.

6. Eranskinak

1. Eranskina: Lan idatziaren eta ahozko defentsaren ebaluaziorako errubrika

Ebaluatutako alderdia	Bikain	Ongi	Nahikoa	Gutxiegi
Terminologia, ortografia eta gramatika	Maila handiko terminologiaren erabilera eraginkorra, eta zuzentasun osoa ortografian, puntuazioan eta gramatikan, Euskaltzaindiaren arauak errespetatuz. (2)	Terminologiaren erabilera egokia. Oro har, lana zuzen idatzita dago, nahiz eta tarteka akatsen bat edo beste egon ortografian edota gramatikan. (1,5)	Terminologiaren erabilera onargarria, aberatsagoa izan zitekeen arren. Ortografian eta gramatikan akats batzuk, nahiz eta lana, oro har, egoki idatzita egon. (1)	Terminologiaren erabilera sarri desegokia da eta akats ugari ortografian eta gramatikan. (0)
Ordena, koherentzia eta logika, ideien aurkezpena	Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira, argumentazio koherentez. Aurkibidearen eta epigrafeen erabilera zuzena. (2)	Ideiak modu sendoan azaltzen dira lan osoan zehar, nahiz eta hobetu daitekeen. Aurkibidearen eta ideien garapenaren artean lotura egokia. (1,5)	Ordena eta koherentzia lanaren atal batzuetan antzematen den arren, ez da agertzen lan osoan zehar. Aurkibideak hutsuneren bat dauka eta epigraferen bat falta da. (1)	Ideiak modu nahasian azaltzen dira, funtsik gabe eta ordena logiko nahikoa falta da. Lan nahasia eta astuna da jarraitzeko. Aurkibidea ez dator bat ondorengo lanarekin eta akats asko dago. (0)
Sakontasun zientifikoa	Ikuspegi berria eta sortzailea aurkezten du, arrazoibidean heldutasuna, gaiaren ulermen sakona eta taldekideen arteko eztabaida sakona erakutsiz. (2)	Gaiaren ulermen egokia eta sintesi ahalmena, kritikoagoa eta sortzaileagoa izan zitekeen arren. (1,5)	Gaiaren ulermen onargarria eta oinarritzko erreferentzia batzuetan bermatuta. Ez du kritikarako aparteko ahalmenik erakusten. (1,25)	Gaiaren ulermen eskasa, Batere berritzailea ez den ikuspegi bat aurkezten du eta erreferentzia desegokiak. (0)

Informazio iturrien erabilera	Informazio iturrien erabilera bikaina, planteatutako oinarriak sostengatzeko. Aipu eta erreferentzia guztiak ondo txertatzen dira APA arauak errespetatuz. (1,5)	Ikuspegi gehienak informazio iturriekin sostengatzen dira. Aipu eta erreferentzia gehien- gehienak zuzen txertatzen dira. (0,7)	Ikuspegi batzuk ez dira sostengatzen informazio iturriekin. Aipu eta erreferentzia gehienak zuzen txertatzen dira. (0,25)	Informazio iturriak ez dira erabiltzen, edo oso gutxi erabiltzen dira, azaldutako puntuak sostengatzeko. Aipu edo erreferentzietan akats nabarmenak APA arauen arabera. (0)
Lana entregatzeko puntualtasuna	Lana entregatzeko epean puntualtasun zorrotza. (0,5)	Adostutako egunean lana entregatu ez zen arren, aurretik jakinarazten zaio irakasleari, atzerapenaren zioak ondo arrazoituz. Atzerapena egun 1ekoa izan daiteke. (0,3)	Adostutako egunean lana entregatu ez zen arren, aurretik jakinarazi zion taldeak irakasleari, atzerapenaren zioak ondo arrazoituz. Atzerapena 2 egunekoa izan daiteke. (0,25)	Lana 3 eguneko edo gehiagoko atzerapenarekin entregatzen da, edota ez zaio jakinarazten irakasleari atzerapenaren arrazoia. (0)
Lanaren atalak	Modulu-gidan zehaztutako puntu guztiak ondo azalduta agertzen dira. (2)	Modulu-gidan zehaztutako puntu guztiak agertzen dira, baina baten bat ez dago ondo azalduta. (1,5)	Modulu-gidan zehaztutako atal batzuk falta dira. (1,25)	Ez du jarraitzen modulu-gidan zehaztutako egitura. (0)
Puntuazioa	10	7	5	0

2. Eranskina: APA arauak, argitalpenen erreferentziarako.

- 7.Argitalpena, 2021 eskuragai hemen:
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42398/Gu%C3%ADa-Gidaliburua.pdf?sequence=9&isAllowed=y>
- 6.Argitalpena, 2009¹
Area Moreira, M. (1999). Los materiales curriculares en los procesos de diseminación y desarrollo del curriculum. In J.M. Escudero (editorea), *Diseño, desarrollo e innovación del curriculum* (189-208. orr.). Madril: Síntesis argitaletxea. Hezkuntza.
Diego Cuscoy, L. (1943). *Folklore infantil*. La Laguna: Instituto de Estudios Canarios.
Díez Gutiérrez, E.J., Terrón Bañuelos, E., & Anguita Martínez, R. (2009). Percepción de las mujeres sobre el techo de cristal en educación. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 64, 20-40.
Ezeiza, J., Lekuona, M., & Altuna, E. (1995). *Esalditik testura. Euskaraz trebatzen*. Donostia: Gaiak argitaletxea. Feito, R. (1997). El contenido de la enseñanza. In M. Fernández Enguita (Koor.), *Sociología de las instituciones de educación secundaria* (124-133. orr.). Bartzelona: ICE/Horsori Bartzelonako Unibertsitatea.
Hernández, F., & Ventura, M. (2010). *Curriculuma lan-proiektuen bidez nola antolatu. Ezagutza kaleodskopio bat da*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
Hernández, F., & Ventura, M. (1998a). *La organización del curriculum y proyectos de trabajo. Es un caleidoscopio*. Bartzelona: ICE-Grao argitaletxea.
Hernández, F., & Ventura, M. (1998b). *Los proyectos de Trabajo una forma de organizar los conocimientos escolares*. Bartzelona: ICE-Grao argitaletxea. 2011-06-03an berreskuratua,
http://redescolar.ilce.edu.mx/redescolar/biblioteca/articulos/pdf/los_proyectos_de_trabajo.pdf-tik.
García, M., & Andreu, S. (2003). Las investigadoras científicas: Análisis sociológico del campo científico desde la perspectiva de género. *Revista Complutense de Educación*, 14, 337-360.
Nafarroako Gobernua (1992). *Guía General. Infantil*. Madril:
Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Saila eta MEC.UNESCO (1998). *World education report*. Paris: UNESCOren argitalpenak.
UNESCO (1998). *World education report*. Paris: UNESCOren argitalpenak.

¹ Xehetasun gehiago [APAren estilo-liburuan](#). Word 2007 testu prozesatzaileak eta ondorengo bertsioek asko errazten dute bibliografia-lana honako menua irekiz: *Erreferentziak/ Bibliografia eta Aipuak/ Estiloa/ APA (American Psychological Association)*
EHUko Berdintasun sailak argitaratu duen gidak zera dio:
18.orrialdean: "En las referencias bibliográficas se deben señalar los nombres de pila para conocer la autoría real".

BHF ko web orrian dago gida eskuragai:

<https://www.ehu.eus/documents/2955630/23110607/HIZKUNTZA+INKLUSIBOA.pdf>

EHU ko web orrian dago gida eskuragai:

https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/txostenak/-/asset_publisher/xeO3/content/guia-para-el-uso-no-sexista-del-lenguaje?inheritRedirect=false&redirect=https%3A%2F%2Fwww.ehu.eus%3A443%2Fes%2Fweb%2Fberdintasuna-direccionparalaigualdad%2Ftxostenak%3Fp_p_id%3D101_INSTANCE_xeO3%26p_p_lifecycle%3D0%26p_p_state%3Dnormal%26p_p_mode%3Dview%26p_p_col_id%3Dcolumn-2%26p_p_col_count%3D1

3. Eranskina: Koebaluazio-orria

IZEN-ABIZENAK: _____

Justifikatu zure taldearen ikaskideei jartzen diezun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo galderei buruz:

KOEBALUAZIOA	1. ikaslea	Justifikazioa	2. ikaslea	Justifikazioa	3. ikaslea	Justifikazioa	...	Justifikazioa	...	Justifikazioa
	0-10		0-10		0-10		0-10		0-10	
1. Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du (taldearen funtzionamenduan lagundu du, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten eta dinamizatzen...).										
2. Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditu.										
3. Taldeak burututako bilera guztietara joan da esleitutako zereginak eginda.										
4. Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman du.										
5. Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala (zehaztu).										